



noaua



Kabiene Elkarlan Gunea

Indarrak batzearen garrantzia

AZKEN PLAZAK!
garaiz zaude!

BIDAIA TALDEAN
Iteera Lasarte-Oriatik
abenduaren 3tik 8ra

Hegazkinak Bilbotik!

ISLANDIA
Aurora Borealak **1.940€**

MUNICH
Gabonetako merkatuak **839€**

KRUZEROA
Guadalquivir ibaian **891€**

Persona bakoitzeko prezioak. Tasak barne. Informazioa eta emeserbak bulegoan.

NOAOA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hpedromo Etxebarria, 10 - 20100 Lasarte Oria, Gaurkoa
T.943 373 613 | info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com

Auto Guria s.l

Auto Guria
Mobil Service

Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

943 363 298

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA
2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi,

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com

Albiste iruditan

Herriko txoko ederren bila

Hurbilago Elkartek, Usurbilgo irudiekin apaindu nahi ditu herriko dendak eta establezimenduak. "Usurbilgo txokorik eder eta berezienen" argazki lehiaketa antolatu du horretarako. Argazkilari amateur zein profesionali zuzendua dago txapelketa. Bi kategoriatan banatuko dute ekimena, 4-16 urte arteko haur eta gazteek eta 17 urtetik gorako helduek parte har dezaten.

■ Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi argazki aurkeztu ahalko ditu; Usurbilen eginiko argazkia izan beharko du (argazkiaren tokiko helbidea eta deskribapena adierazi).

■ Argazkiak aldeztu aurretik argitaratu gabea izan behar du, urriaren 1etik azaroaren 15era arteko tartean eginikoa; argazkiko edukien erantzule bakarra argazkia aurkeztu duenarena izango da. "Identifika daitezkeen pertsonak agertzen diren argazkien kasuan, lehiakideek pertsona horien baimena izan beharko dute.



Azaroaren 15ean amaituko da Hurbilagok antolatu duen argazki lehiaketan parte hartzeko epea.

Pertsona horiek bere irudiaren erabilera baimendu badute, Hurbilagok baimen hori eskatzeko eskubidea izango du", ohartarazi dute Hurbilago Elkartetik.

■ Argazkiak azaroaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira, Ivan Perez argazkilariaren establezimenduan; Bordaberri 3, 2. lokala.

■ Saria, haur eta gazteen kategorian: Fujifilm XP90 argazki kamera.

■ Saria, helduenean: Canon 760D + 18-55 mm EF-S IS STM kamera.

■ Saria, Argazkiak herriko saltokietan jarriko dira ikusgai.

■ Argibide gehiagorako: hurbilago.com/ / Facebook: Hurbilago.

Laburrean

Azaroaren 19an, 1973an jaiotako bazkaria Atxegan

13:00ean elkartuko dira Bordatxon. Eta gero bazkaria Atxegan. Izen emateko: 653 734 377 (Juan Mari), whatsapp bidez 647 973 854 (Aitziber). Email bidez: usurbil73@gmail.com. Azaroaren 14a baino lehen.

Azaroaren 19an, 1972koen kinto bazkaria

Azaroaren 10a baino lehen eman behar da izena. ES38 0182 6043 2102 0151 4132 (BBVA) kontu korrante zenbakian 40 euro ingresatu eta izen abizenak ipini.

1952an jaiotako bazkaria, abenduaren 4an

Saizar jatetxean egingo dute kinto bazkaria. Izena emateko deitu aldeztu aurretik, azaroaren 22a baino lehen, 943 361 380 telefono zenbakira. "Animatu!", luzatu dute gonbita.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luken Arkarazo

Ezinbestekoa

% 43,6ko parte hartzea. Aurreikuspen positiboenen pare, emaitza ederra. Duda barik eta zaila den arren, borroka honi are eta zilegitasun gehiago ematen diona. Ala ez? Izan ere, egindakoak ez du zirrarra handirik sorrarazi, ez nire inguru zabalean behintzat, atzo galdeketaren baitan zuzenean lanean ibili ziren bolondresetatik haratago.

Nonbait jendeak %60tik goragoko parte hartzea espero zuen, "errautegiyan gaya izanda, nola hain boto gutxi?", "noa giezitik %40akin" eta horrelako gogoetak gehiegitan errepikatuta entzun berri ditut. Baina, konstziente al gara bolondresez osaturiko herri plataforma batek antolaturiko erreferendum ez binkulante batek dituen mugetaz? Muga juridiko eta legalak, baliabide mugak, muga kuantitiboak... Eta bestetik, ba al dakigu non bizi garen? Laino artean argi printz batzuk jaurtitzearren: Usurbilen 6.000

pertsonatik gora bizi gara, 1.600 pertsonak bozkatu zuten EH Bildu azken hauteskundeetan, 2.300 pertsonak bozkatu zuten atzo Zubietan eraiki nahi diguten munstroaren aurka. GEDk Idiazabal, bere sorterrian, eginiko herri galdeketak %46ko parte hartzea izan zuen, eta ez dira 2.000 bizilagunetara iristen. Egin kontuak.

Zaila egiten zaigun arren, egin kasu, bizi garen herria Bordatxotik Txiribogara doan kalea betetzen dugun pertsonetatik haratago doa. Ez ahaztu Donostiaren metropolia garena, eta gero eta jende gehiago dagoela, Usurbilen bizi, baina bizitza Usurbildik kanpo egiten dutenak.

Abstentzioaren inguruko lehen irakurketak bi taldetan banatuko nituzke. Bat-bateko eta beraz sinplistenek galdera hauek planteatzen dituzte abiapuntuan: "Berdin die Errautegiaren kontuak? Egitearen alde daude? Ez al dute NOAUA irakurtzen? Usurbilen indar gehiago zegoela uste nuen...". Sakonetik ordea galdera garbia

da: "Nola iritsi bozkatu ez dutenengana? Zertan egin dugu huts? Emaitza ona den arren, hobetu daiteke...". Nire gogoea pertsonala garbia da. Gogorra da esango dudana, baina Usurbilen, errautegiaren aurkako borrokaren erreferente eta lantzaren punta den honetan, uste baina jende gutxiago dabil lanean, eta are larriago, behar baino gutxiago. Bolondresen ezinbesteko lana itzela izan den arren, ulean unekoa izan da: bozkatu, lip dubean parte hartu, hautesmahaietan egon... Ezinbestekoa, baina puntuala. Nire iritzi, herri galdeketaren ekimenean eta orokorrean, errautegiaren aurkako borrokan jendea falta da. Imagina, adibide kuantitatibo bat ematearren, pasa den astean 100 bolondresek udal guztia, etxez etxe pasa izan balute Herri Galdeketaren nondik norakoak azalduz! Ziur despistatu, autoisolatu, satelite eta eszeptiko bat baino gehiagok bozkaturiko zutela pasa den asteburuan.

Eta ez naiz atal kuantitati-

boaren inguruan bakarrik ari, ez ahantzi luze doan borroka batez ari garela eta beraz, gudu zelai ugari zapaldu dituzten borrokalari ugari ditugula. Hots, urriaren 23ko bezalako garaipenek energia eta ilusio dosi itzelak diren arren, nekeak iraun egiten du. Nekea, berrikuntzaren galga ere bihur daiteke. Militante berriek, bi esku berriez gain, garun eta beraz ideia berriak gehitu ditzakete. Ez izan dudarik, herri galdeketaren emaitza itzelak gerra luze honen pasarte berri bat irekiko du.

Amaitzeko, Gandalfek "Bi Dorreak" filmaren amaieran zioenari men eginez: "Herri Galdeketaren inguruko borroka amaitu da, baina Errautegiaren aurkako hasi besterik ez da egin". Eta bertan, indar erakustaldi handiekin batera, ezinbestekoak izango dira ideia berritzaileak, ilusio pizgarriak. Aurpegiak, zaharrak eta berriak. Ezinbestekoa izango da zure laguntza. Ezinbestekoa izango zara.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Maialen Unanue | **Luken Arkarazo** | Idoia Torregarai

Joseba Larratxeren komikia



Erraustegiaren ingurumen baimena, auzitara

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak erraustegia eraikitze ingurumen baimen bateratua eman zion udaberrian Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari (GHK). Gogoan izango duzue, errekurtsioak aurkezteko epearen baitan, Usurbilen eta Zubietan soilik milatik gora errekurtsio aurkeztu zituztela herritarrek bi eguneko tartean. Errekurtsio gehiago Gipuzkoako beste hainbat udalerrietan. Usurbilgo Udalak bere aldetik ere, gora jotzeko bi errekurtsio aurkeztu zituen Jaurlaritzako aipatu sailean, maiatza eta ekaina artean. Bi errekurtsio horiek ez zituen aintzakotzat hartu Gasteizek. Egoera honen aurrean, auzibidera jotzea erabaki du Usurbilgo Udalak. Udala auzi honetan ordezkatu duten abokatu eta prokuradoreak izendatu dituzte.

Urriaren 25ean egin zen osoko ohiko bilkuran, dekretu bidez hartutako erabaki hau berretsi zuen udalbatzak ge-



Auzi honetan Udala ordezkatu duten abokatu eta prokuradoreak izendatu dituzte jada.

hiengo osoz, EHBilduren aldeko botoekin. EAJ-PNV aurka agertu eta PSE abstenitu zen.

2010eko baimen bera

Udal gobernu taldetik egokitzen jo zen gora jotzeko aurkeztutako bi errekurtsioen aurrean ezezkoa jaso ostean, auzibidera jotzea. Nahikoa arrazoi bada eta. "Arrazoiak 10 bat" aipatzen zituzten udal gobernu taldetik. Besteak beste, 2010ean eman zen baimenaren luzapena dela Jaurlaritzak udaberrian GHK-ri emandakoa,

nahiz ordutik erraustegi plan-ta eraikitze proiektuan al-daketa esanguratsua izan den. "Baimen berri bat eskatuko luke horrek, baina ez da egin, lehengoa berrerabili da", zioen Xabier Arregi alkateak, aurreko asteko osoko ohiko bilkuran.

Baimenak ez dituela hainbat baldintza betetzen ikusita, eta erraustegiak herritarron osasun eta ingurumenean izan dezakeen eragina aintzakotzat hartuta, gaiak mamia duelakoan, egokitzen ikusi du Udalak, baimen honen aurka auzibidera jotzea.

2017ko taxi tarifetan, igoerarik ez

2017rako taxi-tarifak onartu ditu Usurbilgo Udalak. Aho bateko babesa eman zien udalbatzak, urriaren 25ean eginiko osoko ohiko bilkuran. Ez da gorabeherarik izango, urte berrian taxia baliatzeagatik ordaindu beharko den diru kopuruan. Alegia, 2017ko taxi tarifak aurtengo eta azken 3 urteotako berak izango dira, 2013az geroztik ez baita igoerarik aplikatu.

Erabaki honek ez du soilik udalbatza osoaren babesa, baita eskualdean lanean dau-

den bi taxi elkarteena ere. Taxi elkarteok proposatzen baituzte urte berrirako tarifak eta aurten ere bere horretan uzteko nahia agertu dute.

2017ko taxi zerbitzuko tarifak

■ Tarifa 1 (lanegunetan, 7:00-22:00 artean):

Gutxiena: 5,12.

Egindako kilometroak: 1,0885.

Itxaronaldia, orduko: 20,8880.

■ Tarifa 2 (egunero, 22:00-07:00 artean; larunbat, igande, jai egun eta abenduaren 24 eta 31n, 7:00-22:00 artean ere bai)

Gutxiena: 6,1028.



Aho batez onartu ziren 2017ko taxi tarifak.

Egindako kilometroak: 1,7436.
Itxaronaldia, orduko: 32,8274.

"Herri eta Harri", Usurbil hobeto

ezagutzeko

Herriko kultur ondarean berrera irailan eginiko bisita gidatuaren jarraipena, larunbat honetan, azaroaren 5ean. Usurbilgo Udalak antolatuta, kafe tertulia 16:00etan Potxoenean Lurmetrikako Aurkene Alzuaren eta Ereiten Kultur Zerbitzuak-en eskutik. Gero, bisita gidatua. Usurbil hobeto ezagutzeko aukera ederra.

Etumeta AEK-ren

ikasturte aurkezpena

2016-17 ikasturteko eskaintza aurkezteko, Mintzalagun egitasmoaren nondik norakoak azaldu eta herritarrak parte hartzera animatzeko, edota ikasleek euskara ikasteko eskura dituzten diru-laguntzen informazioa plazaratzeko, horretarako eta gehiagorako ere emango du ziur aski, azaroaren 7rako antolatu den jardunaldiak. Urriaren 3an ikasturtea abiatu zuen Etumeta AEK euskaltegiak, Usurbilgo Udalarekin eta NOAUA!rekin elkarlanean denboraldi berri honetako aurkezpen ekitaldia antolatu du, datorren astelehenerako, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Euskara ikasten ari direnak, euskaltzaleak, gaiari buruz interesa duen herritar oro gonbidatua dago hitzordura.

KzGunea, datozen

ikastaroak

Bi ikastaro programatu dituzte azarorako:

-Azaroak 9-18, 09:00-11:00: "Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako".

-Azaroak 21-30, 09:00-11:00: "Argazki ukitua GIMP erabiliz".

Informazio gehiagorako:

Nagusia, 37/ 943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Idoia Torregarai, NOAUA!ko lehendakaria: “Elkartea sortu aurretik ere, ongarrri egokia zegoen”

Aurtengo Kulturaldia berezia izango da. NOAUA!ren sorreraren 20. urteurrenaren toki propioa izango du programazioan. Lehen ekitalditik hasita. Ostiral honetan, azaroak 4, NOAUA!ri buruzko ikusentzunezko bat eskainiko dugu Sutegin. #Noauak20 du izena dokumentaltxoak eta Luis Jambriñak zuzendu du. Ikusentzunezkoaren aitzakian, iraganaz, orainaz eta geroaz jardun dugu Idoia Torregarairekin.

NOAUA! Herritar asko aritu zireneten NOAUA!ren sorreran. Gogoan al dituzu hastapen garai haiek? Zer nolako oroitzapena gordetzen duzu?

Idoia Torregarai. Ilusio pilo bat bildu zen NOAUA!ren sorreran. Jende ezberdina, adin ezberdinekoa... Denok sentitzen genuen zerbait handia zetorrela, zerbait berria eta ezberdina. 20 urte eta gero, NOAUA! herrian sustraituriko proiektu bat da. Eta herritarrentzat erreferentzia garrantzitsua da.

Orduan ere, adin ezberdineko jendea batzea ez zen lan erraza izango. Eta era berean, ezinbestekoa izango zen.

Ongarri egokia zegoen NOAUA! sortu aurretik. Esperientzia eta eskarmentu handiko jendea batu zen. Gazte jende asko bagentozen, ilusioz gainezka etorri ere. Denak lanerako gogoz ginen. Eta hori dena ongarrri onena izan zen NOAUA!



Ostiralean Sutegin eskainiko dugun ikusentzunezkoan topatuko dituzue adierazpen hauek, eta beste batzuk.

IDOIA TORREGARAI

“NOAUA!k zutarri sendo bat behar zuen, eta horretarako ezinbestekoa ikusten genuen bazkidetza sendo bat”

Kultur Elkartea abiarazi ahal izateko.

Etxe guztietan eta doan banatzen da NOAUA!. Sistema honek ahalegin handia eskatzen du. Aldizkaria martxan jartzea bezain garrantzitsua izango zen finantziarioa ziurtatzea, ezta?

Ordura arte ez zegoen beste aukerarik. Usurbili buruzko albisteak, eguneroko gertaerak, bertako pertsonen ahotan... Hori lantzeko ez genuen ezer. NOAUA! baliatu genuen euskara etxe guztietara sartzeko eta eus-

kararen ezagutza sustatzeko.

Argi genuen proiektu egonkor bat sortu behar zela. Finkoa, egonkorra. Horregatik bazkide figura sortzea ezinbestekotzat jo genuen hasiera-hasieratik. Ez soilik zentzu ekonomikoan, batez ere behar izan handia ikusi genuen zentzu filosofikoan: NOAUA!k zutarri sendo bat behar zuen, eta horretarako ezinbestekoa ikusten genuen bazkidetza sendo bat osatzea. Horregatik oso garrantzitsua da bazkidetza zenbaki potolo bat edukitzea. Eta horrekin batera, belaunaldi berriak bazkidetza horretara batzea.

Finantziario arloan, dirulaguntzak eta publizitatea ere funtsezkoak dira.

Usurbilgo Udala inplikatzeko ezinbestekoa zen. Hori argi genuen. Proiektua Udaletxean

aurkeztu genuenean hasieratik estrategikotzat hartu zuten, eta geroztik bidelagun izan dugu Udala. Inplikazio hori txalotzekoa da. Hasieratik ikusi zutelako zer nolako garrantzia zuen NOAUA!k herriarentzat. Geroztik hona, etenik gabeko babesa eskaini zaio NOAUA!ri.

Gerora, beste dirulaguntzetara ere aurkeztu izan gara, horren premia ere badugulako. Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik etorri izan den babesa ere azpimarratu nahi nuke.

Publizitatea litzateke hirugarren hanka nagusia.

Oso garrantzitsua da euren ekarpena. NOAUA!n publizitatea ipintzea eurentzat ere mesedegarri da. Etxe guztietara banatzen den heinean, NOAUA!ren irismena oso handia da.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Otar-Goxo
Elkagaia
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

“Esango nuke NOAUA! oso ondo egokitu dela Internetek ekarri duen olatu berri honetara”

NOAUA! Duela 20 urte ez bezala, Internet garaia dugu honakoa. Arlo horretan, toki egokian ikusten al duzu NOAUA!? Idoia Torregarai. Dauzkagun baliabideak kontuan izanda, esango nuke NOAUA! oso ondo egokitu dela olatu berri honetara. Web gunea dugu, etengabe eguneratzen dena, eta sare sozialek ematen diguten zerbitzua ere azpimarratzekoa da.

Uste dut egiten den lana oso duina dela. Gaur egun, jendeak badaki azken albistea NOAUA!n egongo dela. Sare sozialetan topatuko dituela azken berriak. Badaki NOAUA!k kunplutuko duela, hor egongo dela. Hori oso garrantzitsua da baina nabarmenezkoa da horrek zer nolako ahalegina eskatzen dion lan taldeari. Izan ere, asteroaren jardunaz gain, sarean ere ahalegin bat eskatzen du horrek.

Jendeak konstziente izan behar du lan taldeak zer nolako ahalegina egiten duen unean unekoa eskaini ahal izateko. Une honetan egiten den lana oso ona izaten ari da.

Urteotan, aldizkaria bideratzeaz aparte, NOAUA! Kultur Elkarateak beste hainbat lan sustatu ditu: baserrien eta baserriarren liburua, ondarearena... Astekari bat plazaratzeaz gain, herritarrentzat eta bereziki herriko taldeentzat plataforma komunikatibo batean bilakatu da, ezta?



Aurtengo Sagardo Egunean hasi ziren urteurren ospakizunak. 20 urte lehenago, NOAUA!ko bazkideak batu ziren toki berean. Argazkia: Ion Markel.

IDOIA TORREGARAI

“Kultur elkarte ere bagara. Hortaz, Usurbilen euskara eta kultura sustatzea dira gure helburu nagusiak”

Halaxe izan behar du gainera. Proiektu bizia. Herritarrei eta herriko taldeei zerbitzu emateko dago NOAUA!. Kultur elkarte ere bagara, eta euskara eta kultura Usurbilen sustatzea dira NOAUA!ren helburu nagusiak.

Beharbada askorentzat erreferentzia nagusia aldizkaria da, baina urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen ditugu. Eta bere garrantzia dute Usurbilgo dinamikan.

Etorkizunean, haratago joan eta proiektu berri gehiago egin behar ditugu.

Etorkizunari begira hain zuen, zein da NOAUA! Kultur Elkarateak bete beharko lukeen funtzioa?

Proiektu kulturalak sustatzen jarraituko duen kultur elkarte bat irudikatzen dut. Herriko beste eragile batzuekin elkarlanean. Bestetik, aldizkariari lotuta, nahiko nuke hemendik hogeiterra ere NOAUA! gaur egun den erreferentzia izaten jarraitzea, batez ere belaunaldi berrientzat.

Bazkideatza sendotzea nahiko nuke ere, NOAUA!k bere bazkideatza berritzen joatea. Elkartea indarberritua izan den seinale litzateke.

Azkenik, nahiko nuke hogeiterra urte barru argazki bat ateratzea eta adin ezberdinetako eta modu zein pentsaera ezberdineko jendea agertzea argazki horretan. Hori izango litzateke emaitzarik onena. Gauzak ondo egiten ari garen seinale litzateke.

Ostiral honetan hasiko da NOAUA! Kulturaldia

#Noauak20 proiektzioa

Aurtengo maiatzean NOAUA! Kultur Elkarateak 20 urte bete zituen. Urtemuga berezi hau ospatzu ekingo diogu Kulturaldiari, bi hamarkada hauetako NOAUA! K.E.-ren historiari errepaso txiki bat emango dion bideo proiektzioaren bitartez.

■ Azaroak 4 ostirala.

■ 19:00etan Sutegin. Doan.

Orbeldi Dantza

Taldearen saioa

Maiatzean, Urdiñarbeko Musikaren Egunean izan ziren Orbeldi Dantza Taldekoak. Orduan eskaini zuten ekitaldi hura, usurbildarren aurrean plazaratuko dute.

■ Azaroak 4 ostirala. 19:30ean Sutegin. Sarrera: 3 euro. Bordatxon, Artzabalena, Lizardin, NOAUA!n. NOAUA!ko bazkideek euro batean, alde zurretik eta NOAUA!ko egoitzan bakarrik.

#Noauak20

erakusketa Sutegin

Bi hamarkada hauetako hainbat bizipen oroitzeko aukera izango dugu Sutegin antolatu dugun erakusketan. Bideo proiektzio batekin osatzen da erakusketa.

■ Azaroak 4 (18:30-20:30). Azaroak 7, 8, 9, 10, 11 (18:00-20:00). Azaroak 12, 13 (eguerdiz, 12:00-14:00).

■ Sutegin, erakusketa aretoan.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Tallak 36-60
INQUIETUD
JANTZI-DENDA
Nagusia 49, LASARTE-ORIA

Azaroaren 11n, kantu-jira eta segidan kantu-bertso-afaria

Kantu Taldea hilabete-ko azken larunbatean irten ohi da kalera. NOAUA! Kulturaldian ordea, salbuespen bat egingo dute, hilabete-ko azken larunbatean ez ezik, azaroaren 11n ere kalez kale arituko dira-eta. Jiraren ondoren, Artzabalen antolatu dugun bertso-afarian hartuko dute parte. Beraz, jai beteaz izango da azaroaren 11koa.

Usurbilgo Kantu Taldeak kantutegi berri bat plazaratu du. NOAUA! eta Udalaren laguntzari esker, liburuxka eguneratu egin dute eta ale berriak eman dituzte argitara. Dagoeneko eskuragarri daude, 5 eurotan, NOAUA!n bertan.

Azaroaren 11ko Kantu Jiraren aitzakia harturik, Usurbilgo Kantu Taldekoak kantuan ibiliko dira kaxkoan barrena. Afalorduan, Artzabal jatetxera hurbilduko dira eta NOAUA!k antolatu duen bertso-afariarekin bat egingo dute.

Uxue Alberdi eta Jexux Mari Irazu bertsolariak izango dira



Azaroaren 11n, 19:00etan hasiko da kantu-jira. Ondoren, Artzabalgo bertso-afariarekin bat egingo dute Kantu Taldekoek. Afalostean, kantu liburuxka berria aurkeztuko dute Artzabalen bertan.

TXARTELAK JADA SALGAI

“Bertso-afariko menua: aperitiboa, entsalada epela, bakailuz beteriko piperrak, txerri azpizun brotxeta, brownia, kafea eta edaria”

afaria girotuko dutenak. Afariko menua hauxe izango da: aperitiboa, entsalada epela, bakailuz beteriko piperrak, txerri azpizun brotxeta, brownia, kafea eta eda-

ria. Txartel kopurua mugatua denez, garaiz erostea komeni!

Kantu-bertso-afaria

- Azaroak 11 ostirala.
- 19:00 Kantu-jira.
- 21:00 Afaria Artzabalen.
- Bertsolariak: Uxue Alberdi eta Jexux Mari Irazu.
- Gai-jartzailea: Inaxio Usarralde.
- Txartelak 20 eurotan salgai NOAUA!n, Artzabalen, Bordatxon eta Lizardin.

Azaroaren 12an larunbata, “Non gaude?” komedia kutsuko antzezlanaren SuteGIN

Greban gaude eta Prest gaude! antzezlanen segidakoa da *Non gaude*. “Oraingoan non gauden ere ez dakigu!”. Lakrikun Antzerki Taldekoek ohi duten moduan, komedia kutsuko lan batekin etorriko dira gure artetera.

“Non gaude?”

- Azaroak 12 larunbata.
- 20:00etan SuteGIN.
- Sarrera: 7 euro. NOAUA!ko bazkideek 5 (NOAUA!ko egoitzan eta alde zurretik erosita).



Umorea nagusi izaten da Lakrikun Antzerki Taldearen obra guztietan.

Hitzez eta doinu

“Konpasetan: bidaia intimo bat” errezitaldia

Emakumeen Egunaren karietara, 2016ko apirilean estreinatua zen *Konpasetan: bidaia intimo bat* emakumeen istorioetan zehar. Musikaren historian zehar ibilbide xume bat egitea du helburu.

■ Garazi Kamio, Susana Cencillo.

■ Azaroak 5 larunbata.

■ 20:00etan SuteGIN.

■ Doan.

Xabi Solanorekin

solasean

Azaroaren 10ean osteguna, SuteGira etorriko da bere musika ibilbidea azaldu eta ikusleentzako galderak erantzutera. Baita berak oso ongi dakiena egitera ere: bere instrumentuekin bere musikaz gozatzeko aukera ere izango dugu SuteGIN.

■ Azaroak 10 osteguna.

■ 19:30ean SuteGIN.

■ Doan.



Azaroaren 10ean, SuteGIN.

Ruper Ordorikaren kontzertua

‘Guria ostatuan’ izeneko disko berrietik zenbait kantu lehenengoz aurkezteaz gain, bere ibilbide oparoan sortutako beste hainbat kantu eraberrituko ditu.

■ Azaroak 13 igandea.

■ 19:00etan SuteGIN.

■ 10 euro. Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA!ko egoitzan). NOAUA!ko bazkideek 8 eurotan erosi ahal izango dute, baina NOAUA!ko egoitzan eta alde zurretik.



BAZKIDEEN TXOKOA



NOAUAIKO bazkide guztien artean zozketatuko ditugu sari zoragarri hauek azaroaren 2an



AZAROAREN 4AN, ostirala
Orbeldi dantza taldea ikusteko
2 SARRERA BIKOITZ



AZAROAREN 12AN, larunbata
Non gauden? antzezlanak ikusteko
2 SARRERA BIKOITZ



AZAROAREN 13AN, igandean
RUPER Ordorika ikusteko
2 SARRERA BIKOITZ

noaua! euskararen aterpe

orain bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauek
Parte hartzeko aukera izango duzu

943 360 321 / elkartea@noaua.eus

Proiektuak garatzeko kabi berria

Zure kontutik ari bazara lanean, interesatuko zaizu elkarrizketa hau. Elhuyarren egoitzaren gainean elkarte berri bat jarri dute martxan; Kabiene, autonomo eta freelance ororentzat irekia dagoen bilgunea. Proiektuak garatzeko aukera eskaintzen dute, baliabideak, espazio bat. Baina lerrootan ohartuko zaretenez, haratago doa egitasmoa, Kabieneko bi kidek azaldu digutenez.

NOAUA! Nola aurkeztuko zenigukete Kabiene?

Jon Aizpurua: Usurbilgo freelance eta autonomoen elkarte bezala aurkezten dugu gure burua. Gure helburu nagusia da, kideon egoera profesionalak bultzatu eta hobetzea, eta elkarlanerako gune izatea.

Julen Artega: Asmoa zen, bakoitzak espazioa izatea etxetik egiten genuen lana egiteko.

Jon A.: Orain arte bezeroekin tabernetan edo ahal zen lekuan biltzen ginen eta arazo bat zen. Profesionalki garatzeko aukera emango zigun leku bat behar genuen.

Ogibide ezberdinetan ari zarete lanean. Nola bildu zarete?

Jon A.: Udalera joan ginen lehenbizi, etxetik lan egiten zuten herritarren erregistrorik bazen jakin nahian, baina ez zegoen ezer. Ahoz aho, tabernetan galdetuta, hala elkartu ginen.

Julen A.: Facebook bidez autonomoentzako bilera baterako deia egin zen eta ni hala enteratu nintzen.

Jon A.: 6-8 bat kontaktu lortu genituen hasiera batean. Facebook bidez gero, 20 bat lagunekin harremantzera heldu ginen.

Ezusteia izan da herrian azalerratu dena?

Jon A.: Ez dakigu zenbat jende



Autonomo eta freelance ororentzat irekia dago Kabiene bilgunea. Argazkia: Ion Markel.

JULEN ARTEAGA

“Itzultzailea, komunikazioa eta diseinuan aritzen dena, bideo editorea eta post-produkzioan dabilena, argazkilaria, web diseinatzailea, eta bi arkitekto ditugu. Denetarik”

dagoen interesa izan lezakeena. Badakigu seguruen 20 lagun baino gehiago egongo direla. 20 lagunon artean zeuden, autonomoak zirenak, lan-

gabezia geratu zirenak, edota autonomo izateko asmotan daudenak. Baina badakigu badagoela jende gehiago etxean lanean ari dena.

Momentuz ze ogibide bildu dituzue Kabiene?

Julen A.: Itzultzailea, komunikazioa eta diseinuan aritzen dena, bideo editorea eta post-produkzioan dabilena, argazkilaria, web diseinatzailea, eta bi arkitekto ditugu. Denetarik.

Bakoitzak bere espazioa du lanerako, baina elkarlane-

rako aukerak ere sor daitezke?

Jon A.: Hiru aste daramatzagu martxan. Eta jada sortu dira aurreneko elkarlanak. Bezero batek ezagutzen ez zuen zerbitzu bat aurkitu du hemen eta aberastu egin du bere produktua, hemen beste zerbaite kontratatuta. Etorri dira aurrekontua eskatzera, jakinda hemen zein dagoen lanean.

Julen A.: Gure ideia da Kabiene erreferentzia puntu batean bihurtzea. Horretaz aparte, harreman pertsonalak hemen asko aberastu eta zabalduko dira.

Elhuyarren eraikinean dago Kabiene

NOAUA! Elhuyar gainean zaude. Elhuyarren aurkeztu berri duzue zuen burua. Zer moduz joan da? Kokagunea ere lagungarria zaizue?

Jon A.: Aurkezpena oso positiboa izan zen. Beraien partetik oso jarrera irekia izan dute hasieratik. Erraztasun asko eman digute proiektua martxan jartzeko eta aurkeztuta gero ere inguratu zitzaizkigun bertako langileak proiektuaz interesaturik. Elhuyar motore, gure laguntzaile izatea, guretzako



“Erraztasun handiak eman dizkigute Elhuyarren”. Argazkia: Ion Markel.

babes handia da. Azkenean beraiekin ere elkarlana jorratu

daiteke, proiektu berriak sortu, guretzako abantaila da.

“Prezioak ahalik eta gehien estutu ditugu, elkarteak ahalik eta irekiena izatea nahi dugulako”



kabiene.com web orrian topatuko duzue elkarte berri honi buruzko informazio gehiago. Argazkia: Ion Markel.

NOAUA! Gaur egun zuen ibilbidea jorratzea bideragarria da? Zein da abiapuntua?

Jon Aizpurua: Bideragarria proiektuaren eta norberaren baitan izaten da. Egia da erakundeen aldetik laguntza oso oinarritzkoa, tekniko eta puntuala izaten da eta laguntza horrek ez dizu bultzada handirik ematen. Horrelako leku batean, bideratu zaitezke pausoak ematera. Elkarte honek freelance eta autonomo guztiena izan nahi du, nahiz hemen egon edo ez. Jendeak hemen aurki dezake guretzat oso garrantzitsua den zerbait; erakundeen laguntza puntual horretatik aparte, gure ezagutzaren transmisioa.

Julen Arteaga: Azkenean hemen gauden ia denok hasierako zalantzak izan ditugu tramiteekin, fiskalitatea nola kudeatu. Horretan guztian lagundu dezakegu.

Eta nahi duenareztat, espazioa ere erabilgarri duzue?

Jon A.: Ahalik eta aukera zabalena eta doituena eskaintzen ahalegindu gara. Intereza duenarekin hitzordua jarri eta elkarrizketa egingo zaio,

JON AIZPURUA

“Elkarte honek freelance eta autonomo guztiena izan nahi du, nahiz hemen egon edo ez. Jendeak hemen aurki dezake guretzat oso garrantzitsua den zerbait; erakundeen laguntza puntual horretatik aparte, gure ezagutzaren transmisioa”

proiektua aurkeztu eta dituen beharrak aurreikusteko. Aukera ematen dugu egun baterako, egun erdi edo lanaldi osoz aritzeko, etxetik lanean aritu nahi baina bezeroekin elkartu nahi dutenentzat bilera gelak orduka alokatzeko. Prezioak, 10etik 75 eurotara, edonork asumitu ditzakeen prezioak izateko. Honez gain, etxetik lan egiten dutenek elkarteak babestu, proiektuaren parte izan, eta batzarretan boto eskubidea izateko aukera dute, urtean 50 euroren truke.

Julen A.: Elkarte kideek instalakuntzak erabiltzeko deskontua izango lukete. Web orrian dago informazio guztia. Emailak daude, edo deitu dezakete edozein unetan. Edo bisitatu gaitzakete, konpromisorik gabe.

Zuena bezalako esperientziak zabaltzen doaz.

Jon A.: Hiri handietan oso ohikoa bihurtu da. Donostian bertan bat baino gehiago daude. Baina guri interesgarria iruditzen zitzaigun, Donostiara joan beharrik izan gabe, proiektuak herrian bertan garatu ahal izatea eta herrira zabaltzea. Horretatik prezioetan ere ahalik eta gehien estutzen dugu, elkarteak ahalik eta irekiena izatea nahi dugu.

Julen A.: Hainbeste aldiz esaten da lan eta bizi herrian egin nahi dugula, laguntza bat izatea nahi genuen, gu bezalako egoera berdinean zegoen jendeak lan eta bizi Usurbilen egin ahal izateko.

Epe motzerako ekimenik?

Jon A.: Herriko elkarteekin eta Udalarekin biltzen eta proiektua azaltzen gabilta. Bigarren pauso gisa, inaugurazio ekitaldi bat egin nahi dugu. Eta gure lan nagusia herriari begira da, zabaldu eta ezagutaratzea.

Julen A.: Elkarte gisa finkatzen garenean, gure ideia bada Usurbilen ekimenak antolatzea, gure proiektua herriarentzat ere aberasgarria izatea.

Arnasgune bat

NOAUA! Kabiene zuentzat arnasgunea ere izango da, bizi-modu pertsonala eta profesionala bereizten lagundu dizue, ezta?

Jon A.: Biltzen hasi ginenean gerora Udalari aurkeztu genuen diagnosi bat egin genuen. Diagnosi horretan asko komentatzen zen gauzetako bat zen, etxeko espazio pribatua eta espazio profesionala ezin banatuaren arazoa. Alde horretatik arnasgune bat da, eta honez gain, askoz ere ingurugiro hobe batean lanean zaude. Azkenean profesionaltasun bat ematen diozu zure buruari. Etxera joaten eta deskonektatu egiten duzu. Hemen gainera beste profesionalen iritzi eta esperientziak zure lana aberastzen du. Hazkunde pertsonal bat ematen da. Etxean zaudenean zu bakarrik zaudete zure munduan eta horrek isolatzen zaitu.

Julen A.: Profesionalki asko laguntzen du giroak eta baita pertsonalki ere. Lanaz gain, bizitza ere etxean egiten duzu eta horrek lanean eragiten du. Hemen espazio bat izanda, gero etxean deskonektatzen duzu.

Informazio gehiagorako:

■ Zelai Haundi 3 - 5. Solairua (Elhuyarren egoitzaren gainean).

■ kabiene.com

■ Facebook: KABIENE







Klik! batean

Finalerako bidean

Zubietak Endika Abril Errebote Txapelketako finala jokatu du. Pasa den igandean, 13-5 emaitzarekin Endaiarrak taldea garaitu ondoren. Eguraldia ez bada oztopo, datorren igandean jokatu da finala Villabonan. Donibane Lohitzuneko Luzaz Gazte taldea izango da Zubietaren aurkaria.

Argazkia: Ion Markel

Etxeko mahaian, enbaxadore

Azaroaren 13an hainbat etxeetan bazkari berezia ospatuko da. Jatorri ezberdinetako herritarrek eseriko dira mahai baten bueltan. Bizipen, kultura, ohiturak elkartrukatuko dituzte, norbera bere sorterriko enbaxadore bihurtuz. Eta batez ere, herritarren arteko elkar ezagutza bultzatuko du SOS Arrazakeria taldeak antolatutako “Bizilagunak” egitasmoak. Izen emateko epea zabalik da, eta parte hartzera animatu zizugun Usurbil Herri Anitza Jaian, aipatu taldeko kide Tarana Karimek.



Azaroaren 13an ospatuko da “Bizilagunak” izeneko egitasmoaren edizio berri bat. Argazkia Herri Anitza eguneko da.

NOAUA! Zer da “Bizilagunak”?

Tarana Karim: SOS Arrazakeriak antolatzen duen ekimen bat da. Euskal Herri mailan antolatzen dugun bosgarren aldia da, baina batez ere Gipuzkoako udalerrri eta elkarte askok parte hartzen dute. Jatorri ezberdinetako familiak bazkari batean biltzen dira, baten edo bestearen etxean. Aurten azaroaren 13an. Bazkari honetan dinamizatzaile bat egoten da, familion arteko zubilana egiteko. Bi familiak elkartze-

TARANA KARIM

“Bazkari honetan dinamizatzaile bat egoten da, familion arteko zubilana egiteko. Bi familiak elkartzerakoan, saiatzen gara beti herri berekoak izaten, harremanak jarraipena izan dezan gerora”

rakoan, saiatzen gara beti herri berekoak izaten, harremanak

jarraipena izan dezan gerora.

Iaz Usurbilgo bi familiek parte hartu zuten. Zer harrera du egitasmo honek?

Gipuzkoan behintzat 215 bat bazkari antolatu da. 2.500 pertsonak parte hartu dute ekimen honetan. Bertako jendeak gertutasuna nabaritu du. Kolektibo batzuei buruz iritzia aldatu zaio. Pixkanaka helburuak lortzen goaz. Jendearen iritziarekin ikusten dugu. Jada bosgarren urtea da, eta

familia gehienek eta dinamizatzaileek errepikatzen dute.

Zer ekarpen egiten die esperientzia honek?

Askok jarraitzen dute laguntasuna, umeengatik edo kirola bertan egiten dutelako. Leku berdinetan biltzen dira berriz. Horregatik nahi dugu herri bereko familiak elkartzea, gero harremana jarraitzeko. Iaz bi familia izan genituen Usurbilen. Ia aurten gehiago biltzen diren. Animatu eta parte hartu!

Urtez urte gehitzen doa partehartzaile kopurua

NOAUA! Zer moduz doa aurten-go kanpaina?

Tarana Karim: Urte osoan egun horren zain izaten gara. Hasiak gara kanpainarekin, inskripzio lanekin. Familiak lortu nahi ditugu. Urtez urte gehitzen doa partehartzaile kopurua. Aurten parte hartzaile bereziak ditugu, kirolariak nahi ditugu gurekin ekimen honetan egotea, kirol guneetan elkarbizitza ere landu behar dela pentsatzen dugulako. Elkar ezagutu behar gara. Bestalde, desorekatua dago kanpotarren parte hartzea, be-



Urriar aurkeztu zen kanpaina. Izena emateko: mugak.eu webgunean, 943 321 811 telefonora deituz edo sosracismobizilagunak@gmail.com helbidean.

ere egoeratik diskriminatua daudelako ez dute hainbeste parte hartzen. Errealitate hori ere erakutsi nahi dugu.

Izen emateko eta argibide gehiago jasotzeko

943 32 18 11

Buruntzaldean:

amherbizilagunak@gmail.com

943 336 071/618 420 766.

sosracismobizilagunak@gmail.com

mugak.eu

Facebook: Bizilagunak

Twitter: @bizilagunak2016



Artisautza Azoka, jendetsua eta koloretsua



Domu Santu egunean, bestelako ospakizunik ere izaten da Usurbilen: Artisautza Azoka. Beste behin ere, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsako kideek girotu zuten Aitzaga Elkarteak antolaturiko azoka.

2017ko udal zerga-ordenantzan ez da igoera orokorrik izango

Herritarren poltsikoentzat berri ona. Azken urteotan bezala, Usurbilgo Udalak ez du igoera orokorrik aplikatuko 2017ko zerga-ordenantzan. Erabakia udalbatzaren gehiengo osoak babestu zuen, urriaren 25ean egin zen osoko ohiko bilkuran. EHBilduren aldeko botoekin onartu zen hasieraz, 2017rako zerga-ordenantza. EAJ eta PSE abstenitu ziren.

Udalbatzak hartutako erabakiari erreklamazioak aurkezteko 30 eguneko epea izango da, erabakia udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean. "Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak behar diren behin betiko erabakiak hartuko ditu, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatziz eta Ordenantzen behin betiko idazketa, beren indargabetzea edota, behin behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz. Erreklamaziorik aurkezten ez deneko kasuan, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da".

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren errebisioa

Aipatu moduan, 2017ko zerga-ordenantzan ez du igoera orokorrik aplikatuko Usurbilgo Udalak. Baina badira zenbait salbuespen. Udal gobernu taldetik argitzen dutenez, badira beste erakundeek hartutako erabakien eraginez aplikatu beharko dituen zenbait igoera. "Ez dira Udalak bere kabuz hartutako erabakiak", nabarmentzen dutenez. Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga (OHZ edo erdarazko "IBI") da hain



